

KONTROL MOZIOA
UDALEKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN 2016/2017KO PREZIO
PUBLIKOEN IGOERA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 18an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren Artezkaritza Kontseiluaren otsaileko bileran jakinarazi zitzaigun 2016/2017ko prezio publikoek %1eko igoera izango zutela.

Euskal Autonomia Erkidegoko musika eskolek Eusko Jaurlaritzarekin adostutakoaren baitan, aurreko urteetan igoerak egin behar izan ziren, prezio publikoetan %33ko finantziatziora iristeko, eta helburu hori jada bete da 2015/2016ko ikasturterako.

Igoera honen arrazoia, aldiz, Udaleko Musika eta Dantza Eskolako aurrekontuetako Giza Balibideen atalean egin beharreko esfortzuaren ondorioa da eta horren aurrean familiei prezioa igotzea erabaki da.

Hala ere, Udalaren kapitala aintzat hartuta, kreditu aldaketa egin eta familiei esfortzu ekonomikorik eskatzea saihestu daitekeelako eta batzordean hari buruz emandako azalpenak eskasak izan zirelako, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2016/2017ko Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren prezio publikoei %1eko igoera ez aplikatzea susta dezala.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, %33ko finantzaketa akordioa behin beteta, datozen lau urteetan Udalak portzentaje handiagoa bere gain hartzea, familiei dagokiena jaitsiz, eta susta dezala Eusko Jaurlaritzak ere gauza bera egitea.

Donostian, 2016eko apirilaren 22an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia